

Az25, EMAKUMEONGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Bizitzak kolapsatzen dituzten biolentziei, autodefentsa feminista!

Biharkoan, Azaroaren 25ean emakumeon* aurkako indarkeriaren kontrako egunean, Euskal Herriko neska* gazteok egunetik egunera, geroz eta biolentzia gehiago pairatzen ditugula salatu nahi dugu. Jakin badakigu, pandemia aurretik ere gure bizitzak indarkeriek zeharkatzen zituztela eta hauek era sistemiko batean ematen zirela. Hau da, bizi garen sistema heteropatriarkala kapitalistaren ondorio zirela, honen adibide dira eguneroko baboseoetatik erailketetaraino doazen eraso guztiak. Behin eta berriz errepikatzen ari gara krisi anizkoitz baten erdian gaudela, ez dugulako sinesten hau osasun krisi bat besterik ez denik. Hau krisi ekonomiko, ekologiko, zaintza krisi, krisi sozial, migratorioa da eta hauek guztiek gure bizitzen gaineko biolentzia areagotzea eragiten dute. Horregatik aldarrikatzen dugu, bizitzak kolapsatzen dituzten biolentziei autodefentsa feministarekin egingo diegula aurre.

Argi dugu sistema honek neska* gazteok indarkeriaz tratatzen gaituela. Ezkutatu ezina da, egoera honek sortzen dituen osasun mental arazoaren gorakada: antsietate kasuak, depresioarenak, elikadura-portaeraren nahasmenduak. Suizidioa lehenengo heriotz kausa ez naturala da gaur egun eta pandemian zehar gazteen suizidio tasek gora egin dute. Hau guztia hamaika biolentzien ondorio dira. Jarraian hauetako batzuk azpimarratuko ditugu:

Aisialdi espazioak gero eta maskulinoagoak bilakatzen ari dira, eta hau gutxi ez balitz ligatzeko eta harremantzeko era patriarkal eta erasokorrak gailentzen dabilta.

Sare sozialen gaia ere ezin dugu alde batera utzi, pandemian zehar hauen erabilera nabarmen igo da eta honekin, edertasun kanonetara hurbiltzeko presioa igotzeaz gain, emakumeonganako* hipersexualizazioa eman da. Honekin batera salatu nahi ditugu, hauetan emandako eraso matxista eta ziber jazarpen kasu guztiak.

GAUDE
LURRIAN GARA